



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2017KO ABENDUAREN 28AN TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURA

Etorri diren batzordekideak:

Mikel Agirrezabala Ezkurdia

Etorri diren zinegotziak:
Jesus Peñagarikano Labaka
Itziar Arratibel Imaz
Jon Mikel Iglesias Otegui
Eleuterio Sanchez Garcia

Idazkaria: Naia Ruiz de Eguino Garcia-
Echave

Ibarran 2017ko abenduaren 28an udaletxeko bilera-aretoan, goizeko hamaikak direnean Tokiko Gobernu batzarrak bilera egin zuen eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden

Egintzaren buru Mikel Agirrezabala Ezkurdia alkatea izan zen eta bitarteko idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino

Udalburuak egintza ireki dela adierazi ondoren, bilkura honetarako ditugun gaiak aztertu eta eztabaidatu dira eta honako erabaki hauek hartu dira

LEHENA:

1.2017KO ABENDUAREN 21EKO AKTAREN ONARPENA

2017ko abenduaren 21ean eginiko Gobernu batzarraren akta irakurri ondoren, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

BAKARRA: Onartzea 2017ko abenduaren 21ean eginiko Gobernu Batzarraren akta



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

BIGARRENA:

2.-2017KO ABENDUAREN 22KO HIRIGINTZA BATZORDEAREN INGURUKO ERABAKIAK

2.1 2017KO ABENDUAREN 16AN GERTATURIKO LUR -JAUSIA. URGENTZIAZ HARTU BEHARREKO ERABAKIAK.

2018ko abenduaren 16an Otarreaga 8 ondoko aparkaleku publikoan lur-jausia izan da.

Lur -jausiaren ondorioz kotxe batek kalteak izan ditu eta lur zati bat erortzeko arriskuan geratu da.

Alkatearen aginduz aparkalekuan harriak erortzeko arriskua dagoen zonaldean kotxeak ez aparkatzeko neurriak hartu dira. Ingurua hesitu da.

Ikusi da udal arkitektoaren txostena.

2017ko abenduaren 22an eginiko Hirigintza Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

LEHENA: Arriskua kentzeko ondorengo neurriak hartzea:

Esleitzea Excavaciones Peru S.L. enpresari Otarreaga 8 ondoko aparkalekuaren gainean erortzeko arriskua duen lur zatia kentzea . Aurrekontua 11.780 eurokoa da eta neurketa 900 m3koa. Lanak ondorengo partidatik ordainduko dira 210.450.00.00, eta prestazioak gauzatzen hasteko epea ez da hilabete baino luzeagoa izango.

Arrisku larriaren egoera ikusita esleipenerako 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duenak,113. artikuluan xedaturiko larrialdiko izapidetzea jarraitu da.

BIGARRENA: Esleitzea aparkalekuaren gainean dagoen maldaren egonkortasunari buruzko geologiako azterlanak Oihan, s.l. enpresari. Aurrekontua 2.722.50 eurokoa da eta lanak hilabeteko epean hasiko dira. Lanak ondorengo partidatik ordainduko dira 0000.609.450.00.00.

HIRUGARRENA: Jakinaraztea Inguruko partzelen jabeei harturiko erabakia eta katastroko datuak zuzentzeko diligenziak egiteko eskatzea. Honako hauek dira inguruko



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

partzelak : Katastroko 01 116 partzela (Gurutzeaga berri, Joxelu Lopetegi), 01 743 (Lizarralde etxea, Eugenio Lopetegi.)

2.2- GIPUZKOAKO URAK 2018 URTEAN IBARRAN EGINGO DUEN INBERTSIO PLANA ONARTZEA.

Ibarrako Udalak eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioak 2016-2026 eperako Ibarran uraren ziklo integrala kudeatzeko hitzarmena sinatu zuten 2016ko maiatzaren 31n. Hitzarmenaren hirugarren puntuan jaso zen urtero Gipuzkoako Ur Kontsortzioak egindako lanen berri ematea udalari eta hurrengo urteko inbertsio plana adostea bi erakundeen artean.

2017ko azaroaren 23an Gipuzkoako Ur Kontsortzioa eta udalaren arteko bilera egin zen.

Irakurri da udal arkitektoak jasotako akta eta 2017ko abenduaren 22an eginiko Hirigintza Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

LEHENA: Onartzea Gipuzkoako Urak eta Ibarrako udalak 2018 urterako ondorengo inbertsio plana.

-Otarretik Euskal Herria 42raino ur hornidura sarea berritzea. Lan horiek burutzeko aurreikusitako lanen kostua 80.000 eurokoa da.

-Euskal Herria 56-62tik errekaraino doan saneamenduaren berritzea. Lan horiek burutzeko aurreikusitako lanen kostua 10.000 euro.

- Udalak 2018 urtean Emeterio Arrese kalearen zoladura eraberritzeko asmoa duenez inguru horretako ur hornidura eta saneamenduan hobekuntza eta eraberritzea. Udalak egingo diren lanak zehazterakoan Gipuzkoako Urakek argituko ditu ur sarean egin beharreko lanak eta beharrezkoa balitz obra burutzeko bi erakundeen arteko hitzarmena sinatuko da.

BIGARRENA: Eskatzea Gipuzkoako Ur Kontsortzioari Izaskungo saneamendu sarea eraberritzeko beharrezkoak diren lanen azterketa eta proiektua egiteko.

HIRUGARRENA: Gipuzkoako Urak eta Gipuzkoako Ur kontsortzioari erabakiaren berri ematea.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2.3- ZELAI ERREKAREN GAINEAN OINEZKOENTZAKO PASARELA EGITEKO AZTERKETA TEKNIKOAREN LANEN ESLEIPENA.

Ibarrako Udalak elizaren atzealdean erreka gainean oinezkoentzat pasarela berri bat egiteko asmoarekin bideragarritasuna duen edo ez ikusteko azterketa tekniko kontratatzea erabaki du.

Proiektu horren bitartez, Ibarrako Udalak honako helburuak lortu nahi ditu:

- Gaur egungo erreka baldintza hidraulikoak errespetatzen dituen zubia diseinatzea.
- Egitura sistema eta zubiaren aurrekontua zehaztea. Zimendu-baldintzak.
- Irigarritasun baldintzak kontuan harturik erreka bi aldeetan egin beharreko lanak zehaztea.
- Kosteen estimazioa.
- URA UR agentziak pasarelaren aldeko txostena egiteko beharrezkoak diren agiri eta kontsultak egitea.

Egin beharreko lan zehaztapen guztiak aurrekontua eskatzeko bidalitako agirian jasota dira.

Hiru enpresari eskatu zaie lan aurrekontua eta hauek dira aurkeztutako eskaintzak (BEZa sartuta)

HIRIGINTZA	4 aste	5.082,00 €
ENDARA	hilabete	3.025,00 €
GIRDER INGENIEROS	6 aste	11.800,00 €

Ikusi da udal arkitektoak egindako txostena.

2017ko abenduaren 22an eginiko Hirigintza Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

LEHENA. Zelai erreka gainean pasarela bat egiteko azterketa teknikoaren lanak ENDARA Ingenieros Asociados SL enpresari esleitzea eskaintza merkeena delako, guztira 3.025 €an.

Lanak ondorengo partidatik ordainduko dira: 0000.609.0450.00.00 (348) Proiektuen idazketa.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

BIGARRENA: Eskaintzak aurkeztu dituzten enpresei jakinaraztea erabakiaren berri.

2.4- EMETERIO ARRESE 8 KALEAREN ATZEALDEAN DAGOEN OINEZKO HERRI BIDEA BERRESKURATZEKO OBRAREN ESLEIPENA.

2011. urtean, Ibarra Udala Emeterio Arrese 8 kalearen atzealdean dagoen oinezko herri bidea berreskuratu nahi izan zuen, garai batean Leaburura eta Gaztelura joateko herritarrek maiz erabiltzen zutena.

Proiektu horren bitartez, Ibarra Udala honako helburuak lortu nahi zituen:

- Urteak aurrera egin ahala desagertu den oinezko herri bidea berreskuratu.
- Urteekin hondatutako landa eremuko biztanle-gune bat berreskuratu
- Herritarren bizi kalitatea hobetu.
- Herritarren mugikortasuna hobetu.
- Ingurumena zaindu.

Euskal Autonomia Erkidegoko Landa-inguruneak sustatu eta garatzeko diru laguntzak eskatu ziren (EREIN programa) 2011. urtean.

2012ko otsailaren 22an jaso zen Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako zuzendariaren ebazpena, 2011ko abenduaren 30ekoa, non eskatutako laguntzak ukatu zitzaizkion Ibarra Udalarari. Arrazoa, proiektua ez zettorrela bat Dekretuak arautzen zituen laguntza lerroekin. Hori zela eta, proiektua bertan behera utzi zen.

2017. urtean gaiari berriro heltzeko asmoa dagoela eta, 3/2017 kreditu aldaketaren espedientean sartu da partida berria, 45.000 €-koa (0000.601.153.20.03), inbertsioari aurre egiteko.

Egingo diren lanak hauek dira:

- Bidea prestatu: sasiak kendu, bidearen oinarria egin...
- Argiteria sartu: zanga, hodia eta farolak
- Hormigoizko bidea

Hiru enpresari eskatu zaie lanen aurrekontua:

- 1.- MULARRI S.L., CONSTRUCCIONES Y ASFALTOS
- 2.- BELARMENDI, S.L.
- 3.- UNDIARTE

Hauek dira aurkeztutako eskaintzak (BEZa sartuta)



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

MULARRI S.L., CONSTRUCCIONES Y ASFALTOS	40.465,18 €
BELARMENDI S.L.....	39.339,58 €
UNDIARTE.....	37.447,46 €

Ikusi da udal aparejadoreak egindako txostena.

2017ko abenduaren 22an eginiko Hirigintza Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

LEHENA: Emeterio Arrese 8 kalearen atzealdean dagoen oinezko herri bidea berreskuratzeko lanak UNDIARTE S.L. enpresari esleitzea eskaintza merkeena delako, guztira 37.447,46 €an.

Momentu honetan ez dago partidarik obra finantzatzeko baina 3/2017 kreditu aldaketaren espedientean sartuko da partida berria, 0000.601.153.20.03 partida hain zuzen, 45.000 €koa inbertsioari aurre egiteko.

BIGARRENA: Eskaintzak aurkeztu dituzten enpresei jakinaraztea erabakiaren berri.

HIRUGARRENA:

3. 2018. URTERAKO ERREGELAMENDUA ETA ARAUDI PLANA

39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 132. artikuluan eskatutakoari jarraiki, Ibarra Udaleko teknikariek 2018. urtean egitea aurrikusten dituzten udal ordenantza eta erreglamenduen zerrenda aurkezten du Idazkariak.

Idazkariaren azalpenak entzun ondoren, hau da Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez harturiko

ERABAKIA

BAKARRA: Onartzea 2018. urterako Ibarra Udalaren erregelamendu eta araudien plana (plana web orrialdean argitaratuko da) .



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Eta eguneko gai-zerrendan aztertu beharreko beste gairik ez zegoenez, batzordeburu jaunak egintza amaitutzat eman zuen goizeko hamaikak eta hogeita hamar direnean, eta nik, idazkari naizen honek, horixe egiaztatu nahi dut